ASTEKARIA - 2009ko apirilaren 3an - XIII. urtea - Usurbil, 362. zenbakia

www.noaua.com

# Noaua!!



Aste Santuan eta Pazko Astean, astekaririk ez



# Ihintza aldizkari digitala

# Udarregiko ikasleen bozgorailua




ERRAUSTEGIAN ERREKO DENAREN LABURPENA

| | | |
|---|---|---|
| | 40.000 | Hiri hondakinak |
| + | 1.650 | Industri-merkaritza eta instituzio hondakinak |
| | 13.251 | Araztegietako lohiak |
| = | 54.901 | Tona urteko |

Baino...Orduan zertarako nahi dugu 280.000 tona/urteko erraustegia?

Osasun-tekniko batzordea

ERRAUSKETARIK EZ LURRA BASERRIA HERRIA BIZIRIK

ALKARTASUNA

Usurbilgo Udala



# Sari banaketa Gure Pakea zahar egoitzan

**Gure Pakea zahar egoitzan txapelketa ugari jokatu dira martxoan. Bazkideak gogotsu aritu dira punttuan, tutean, musean, igel jokoan... Aurreko astean, sari banaketan izan ginen, Artzabalen.**



AURREKO ASTEAN EGIN ZEN SARI-BANAKETA ARTZABALEN.

Punttuan, Fernando Lizaso eta Anttoni Zabala izan ziren nagusi. Tutean, Angel Guerra-Francisco Infante. Musean, Angel Guerra-Francisco Infante. Igel jokoan, Luis Cuerdo.

### Donostia-Orio irteera

Gure Pakeak mendi ibilaldia antolatu du. Apirilaren 21ean asteartearekin egingo da irteera, Donostia eta Orio artekoa. Autobusa Usurbilen hartuko dute goizeko 8:00etan. Etxerako bueltatrenez egiteko asmoa dute.

Irteera hiru ordu eta erdiz luzatuko da. Oinetako egokiekin eta ura zein elikagaiak ematea gomendatu dute Gure Pakeako kideek.

### Maiatzean, Salamancara

Maiatzaren 24tik 29ra Salamancako La Alberca zonaldea ezagutzeko asmoa dute Gure Pakeako kideek. Informazio gehiago egoitzan bertan jaso daiteke.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com
Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.
Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.
Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.
Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.
Tirada: 2.600 ale
Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

UDAL AURREKONTUAK AZTERGAI — 6. OR.
NOAUA!KO BATZAR NAGUSIA — 12. OR.
ESKUBALOI TALDEAREN BATZARRA — 14. OR.
LEHEN MENDI LASTERKETA — 15. OR.

Usurbilgo Udala
AIRE, AIRE !!! EUSKARAZ
Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Ford
Usurbil
Autoak, S.C.L.
Zerbitzu Ofiziala
Zumartegi Poligonoa,
Aitzezarra kalea, 1.
20170 USURBIL
Faxa: 943 36 62 92
943 36 10 79

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186



MAIALEN UNANUE

# Eta zerrenda luzatuz doa

Hutsik dago etxea, lasai. Bera, Lurdes, da erregina horrelakoetan. Egunero lez, badu tarte bat beretzat, edo etxearentzat, garbitu ere egin behar izaten baita. Joxe kanpoan da eta nabari da haren ausentzia.

Semearen baloia jasotzera makurtzen da (ume hauek... jasotzeko esan arren, beti dena behar ez den lekuan, berriz ere). Eta ai! Zer, baina? Ah, bai: atzoko ubeldura. Batzuetan Joxeri eskua joan egiten baitzaio. Badakizu, edaten duenean. Edaten ez duenean ere...

Ileko tinte gorria joana zaio, eta begi urdinek galdu dute bizitasuna. 40 urte baitira jada ezagutu zirela. Inor ez baita bekatutik salbatzen, eta zer egin behar duzue ezkondu gabe? Haurdun zaudela zabaltzen bada herrian. Maitemindurik zegoen, ez dago dudarik. Joxe maitasuna zen, algara, zinea, mendia. Goxotasuna, adeitasuna... bai, arretatsua zen Joxe duela 40 urte.

Alde batera eta bestera, gelditu gabe; zuek zarete zuek eroak, maitasunak ez du dirurik ematen Lurdes. Joxe langile fina zen, ordea, eta lehenengo semea eta bigarrena ere lasai hazi eta hezi zituzten. Eguzkia egunero irten eta sartzen zen, beti leku berdinetik. Behetik gora eta goitik behera.

Uda zen lehenengoz gertatu zenean. Aire beroak laztantzen zituen Lurdesen masailak. Umea galdu zela eta nora begira zeunden. Airearen beroak ez ezik, zaplasteko hark ere, lehen horrek, erre zituen Lurdesen masailak. Baita bihotza ere.

Ez hadi larritu, Lurdes, momentuko beroaldia izan dun. Bihar ere argituko din egunak eta barkamena eskatuko din, ikusiko dun.

Egunen joan etorriak, ordea, ez zion horrelakorik erakutsi. Eguzkia jada ez zen lehen bezainbeste igotzen zeru urdinean. Gutxiago etxean. Airea elektrokutatuta ote zegoen, gizona sartzen zen guztietan txinpartak hasten baitziren. Hasieran ez hainbeste, lasaitu hadi, Lurdes. Gero...

Denak harrituta geratu ziren herrian, gero. Nork pentsatuko luke horrelakorik? Ondo ikusten zitzaien, ba... Ondo ikusten zitzaien, baina orain Lurdes hor dago, eteten ez den zerrenda luze batean. Beste zenbaki bat besterik ez da orain.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - **Maialen Unanue** - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

## Ika-mika !

# Ongi etorri Agurtzane

Berriro gure artean haiz eta pozten gaitun gurekin izateaz. Zurrunbilo honek askotan ez ziguk -edo ez zidak- utzen behar bezala dastatzen lortutakoa.

Bai, lortutakoa zionat zeren, azken hauteskundeetan jasan behar izan dinagun jarraipen bortitzaren ondoren 100.000 boto baino gehiago lortzea ez dun "ahuntzaren gauerdiko eztula". Bortizkeria horren adierazle garbia dun baita, gaueko iluntasunean babestuz urtarrilaren 23an armaz josita etorri zitzaizkinan horiek zuten helburua.

Dagoeneko bere legediaren arabera 500 zerrenda baino gehiago ditun legez kanpo utzi dituztenak. Nik ez dinat ezagutzen Europa osoan egoera parekorik (...). Baina herritarrontzat geroz eta garbiago gelditzen dun diktaduretako (Franco zetorkidan gogora) legeetan babestuz egunero komunikabide guztietan "bakea eta demokrazia" hitza erabiltzen duten politikari horien faltsukeria.

Politikari horiek "ezker abertzaleak instituzioetan parte hartu behar du" esatetik beren hitza jan eta "instituzioetatik kanpo utziko ditugu" esatera iritsi ditun, "ezker abertzaleak instituzioetan parte hartu lezake baina guk nahi dugun bezala jokatzen badu" erabiltzera iritsi ditun gure eskubideen zapalkuntza eginaz.

Bazekinat erantzuna garbi daukanala eta erantsiko dinat herriak ere geroz eta garbiago ikusten duela. Nahiz eta Alderdien Legearen aurka daudela esanez dabiltzan politikariak gure inguruan ditugun, hitzetatik ekintzetara igaro behar den une bakoitzean behin eta berriro diktaduretako legedian oinarritzen direla erakutsiz estalki horren pean babestuz eta ilegalizatutako zerrendek lortutako emaitzak bereganatu eta eserleku pozoinduetan esertzen (herrian ezagutu dinagu) (...). Benetan, duintasun oso eskaseko jokabide maltzurra iruditzen zaidan.

Atxilotzeko unean komunikabide guztietan atera zineten. Orain berriz, herrira itzuli (milaka euro ordaindu ondoren) zaretenean, komunikabide (salbuespenak kenduz) horiek itsu-mutu-gor jokatu dutela ikusi dinagu.

Bai, bazekinat lehen ere horrela jokatu izan dutela. Horren adibide bat aipatuko dinat. 1994. urteko uztailean "Pana" herrira etorri zenean, komunikabide horiek berdin jokatu zitenan, baina orain 14 urte argitaratu zitzaion idatzi batean honela irakurri zitekeen… "Etzak pentsa goraipatuko haudanik. Bazekiat eta horrelakorik ez duala nahi. Herri honen askatasuna irrikatzen duenak ez dik beretzat bakarrik borrokatzen, herri osoarentzat baizik. Helburu horrekin dabilenak "ahoko zuloan" egunero jartzen zaizkion erosotasunak hamaika aldiz baztertu egin behar izaten dizkik"… Hitz horiek handik 15 urtera gaurkotasun osoa dutelakoan nago eta idatzi beraren azken lerroak dioen bezala, egunero ikusiko garen itxaropenean, bihar arte Agurtzane.

**Orkatz***

** Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAUA! astekaria)*

# Etxean da Agurtzane Solaberrieta

**Martxoaren 25ean, gaueko 20:30ak aldera iritsi zen Agurtzane Solaberrieta herrira. Eguerdian utzi zuten aske eta orduráko zain zituen etxekoak Brieva herriko (Avila, Espainia) espetxe atarian. Horrelakoetan ohikoa izaten den moduan, herrira iritsi eta lehen ongi etorria Oxtapeko sarreran egin zioten. D3M eta Askatasuna auziarengatik bi hilabete egin ditu espetxean. Behin behineko askatasunean utzi dute kalean.**

Autotik atera eta malkoak begietan zituela, dantzarien agurra jaso zuen Agurtzane Solaberrietak (dantzarien artean zen bere ilobetako bat). Ondoren, lore-sorta bat eman zioten eta Oxtapera hurbildu ziren herritarrak agurtzen lanak izan zituen, jende asko bertaratu baitzen herri-sarrerara. Tartean ziren bere etxekoak, lagunak eta Xabier Mikel Errekondo alkatea.

### Eskerrak herritarrei

Handik, manifestazioan Bordatxo ondoko errotondaraino joan ziren eta hortik Aitzaga aurrera abiatu zen manifestazioa. Aitzaga aurrean, bere argazkia kendu zuen eta hitz batzuk egin zituen Agurtzanek. Berari eta bere etxekoei eskainitako babesagatik, esker oneko hitzak izan zituen herritarrentzat.

Ezker Abertzaleko kideek, opari gisa, atez ateko bilketa egiteko kubo marroia oparitu zioten.



ONGI ETORRI EKITALDIAN, KUBO MARROI BAT JASO ZUEN OPARI MODUAN.

### Argazkiak, sarean ikusgai

Argazkitegian, noaua.com orrialdean, ongi etorriko argazki gehiago aurkituko dituzue.

## Nafartarrak-en ikastaroa, martxan

Joseba Asironek historiaurreari buruz eskaini zuen hitzaldiarekin hasi zen astelehenean indenpendentziaren historiari buruzko ikastaroa. Nabarraldek, Nafartarrak taldeak eta Udalak antolatu duten ekimenari lotutako saioak astelehenero burutuko dira Sutegiko auditorioan, 19:00etik aurrera. Ikastaroa hasita, hitzaldi solteetan parte hartzeko izena eman liteke, 5 euroren truke.




40 LAGUNDIK GORA EMAN DUTE IZENA NAFARTARRAK TALDEAK ANTOLATU DUEN IKASTAROAN.

Ika-mika !

# Hondakinak kudeatzeko ereduak, galdeketa eta galdera

Galdeketa: Gauza ona da herritarrei erabaki garrantzitsuak zuzenean hartu ahal izateko aukera ematea. Hain da ona, Usurbilerako ezezik, Gipuzkoarako ere ona dela. Hain da ona, Euskal Herrirako nahiz munduko txokorik ezkutuenerako ere ona dela. Har bezate mezua Usurbilen galdeketa defendatzen dutenek eta antola ditzatela ere galdeketak erraustegiaren, AHTren, superportuaren, Euskal Herriaren erakundetzearen, nahiz beste hainbat gai garrantzitsuren inguruan.

Galdera: Galdeketen bertutea, herritarrek gai garrantzitsuen inguruan aukeratzean dago. Horretarako beharrezkoa da, galderan, erabakiak eragingo dien gai garrantzitsu guztiak azaltzeaz gain, hauek era garbian azaltzea. Atez atekoa ez da aukeratu orijinala delako, ezta inoren kutixia delako ere. Atez atekoa aukeratzearen arrazoia, orain arteko eredu zabor sortzaile eta kutsatzailearen ordez, osasuna eta ingurumena kaltetuko ez dituen eredu jasangarria gauzatzen hastea da. Proposatu den galderaren bidez (atez atekoa bai/ez) erabakiko dena ez da soilik zaborra atez ate ala edukiontziz edukiontzi jasoko den. Hori erabakitzearekin batera, erabakiaren ondorio zuzen bezala, hondakinen kudeaketa sistema (jasangarria ala kutsakorra) eta honen ondorioak (erraustegiaren beharra ala ez) ere erabakiko dira. Hau horrela izanda eta elementu hauek daukaten garrantzia kontutan hartuta, ezinbestekoa da herritarrek aukeratzean, elementu hauek ere galderan modu garbian aipatzea. Horrela ez egiteak galdera beraren helburu zintzotik aldentzen gaitu, hautatzaileari informazioa ezkutatuaz nahasmen eta erabilera maltzurrerako atea irekitzen baitu. Beraz, egokiena gaiaren muinaz galdetzea litzateke, hau da, eredu jasangarri eta ez jasangarriaren artean aukeratzea. Horrez gain, zenbait herritarrek hala eskatu dutenez, aukeratu den kudeaketa eredua gauzatzeko baliagarriak direla egiaztatu diren bilketa sistemen artean ere aukeratu beharko genuke, gaur gaurkoz hondakinen kudeaketa sistema jasangarri baterako mahai gainean jarri den bilketa sistema baliagarri bakarra atez atekoa dela kontuan hartuta.

**Usurbil Bizirik**

# Usurbilgo Ezker Abertzalea: "Ezkerreko ikuspegitik landutako aurrekontuak dira"

Egoera ekonomikoa azken hamarkadetako larriena dela ezin uka. Hori dela-eta, gizartegintzan eta herrigintzan egin beharreko inbertsioak albo batera uzteko tentazioa izaten dute administrazioek. Aitzitik, Usurbilen arrazoi horrexegatik ahalegin berezia egingo dugu aurtengo aurrekontuetan. Horregatik, 13,7 milioi euroko aurrekontu sendoari aurre egingo dio udalak eta horietatik 3,4 milioi euro (%25) inbertsioetara bideratuko ditugu.

Ezkerreko ikuspegitik landutako aurrekontuak dira. Inolako zalantzarik gabe aurrekontu sozialki aurrerakoiak, behar sozialei aurre egiteko xedez osatuta daudelako. Ahalegin nagusienak arloka:

Gazteriari zuzendutako inbertsioak: pairatzen duten indarkeriari aurre egiteko heziketa egitasmoak, alokairu sozialerako laguntzak, skate parka.

Berdintasuna/emakumea, teknikari postua 2008an plantillan sartu bagenuen ere aurten hornituko da. Laguntza zuzenak, eta abar.

Kulturan, fototeka martxan jarriko da, gazteentzat skate park-a (beraiek aukeratutako proiektua) eta garrantzitsuena Sutegiren osagarri izango den Potxoenea kultur etxea, aspaldiko proiektua. Herriko kultur eragileak biltzen dituen Kultur Aholku Batzordeak egindako ekarpenekin osatutako proiektua gauzatuko da, hain justu. Gainera, inoiz ez bezalako diru-laguntzak bideratuko dira kultur ekimenetarako: 105.000 euro.

Hezkuntzan, nagusiki ikastolaren eta Musika Eskolaren beharrei irtenbidea bilatuko zaie, egoeraren azterketa amaitzear dago eta hortik irtenbideak emateko proiektuak gauzatuko dira. Bitarte horretan, ikastolari arnasa emango dio hastapen tailerrak Atallura eramateak, horretarako 50.000 euro inbetituko dira.

Hirigintzan, auzoak eta erdigunea lotuko dituen bidegorri proiektua egingo da, irisgarritasun arazoak ekiditeko neurriak hartuko dira (plana burututa dago), konpostatze planta berria eraikiko da, urtez urte bazterrean geratu diren auzoetako inbertsioei helduko diegu, bai Santueneko berrurbanizazioa (800.000 euro, bi urteotan) Muna Lurrako/Olarrondoko berrurbanizazioa (1.500.000; 2009-12-31erako amaituta). Brigadaren Atalluko pabiloia egokitzeko 400.000 euro inbertituko dira.

Laburtuz, inbertsio nagusiak:

Potxoenea, Santuenea, Muna Lurra, Atallu (brigada pabiloi berria eta Hastapen Tailerrak) eta konpostatze planta ezinbestean egin beharrekoak dira. Horregatik, gizartegintzako eta herrigintzako proiektuak gauzatzeko inbertsioak ez ditugulako orain artean bezala albo batera utziko, 1,2 milioi euroko zorpetzea egitea onartu da behin-behingoz. Udal kontu-hartzailetzak onetsitako ahalegina da, aipatu zorpetzea 3-4 urtetan amortizatuko da eta aurrerago egin beharko diren inbertsioetarako ahalmenik ez duelako galduko udalak.

# Usurbilgo Eusko Alkartasuna: "1.200.000 eurotako kreditua eskatzea etorkizuna hipotekatzea da"

Udal gobernuak hilabetetako atzerapenez aurkeztu zituen udal aurrekontuak eta azkenik martxoaren erdialdean lehen onarpena eman zaio (...).

Oposizioko talde guztiak bat eginez lortu zen udal gobernuak epe zabalago bat eman beharrean aurkitzea, zeren gobernuaren asmoa lehen egunean aurrekontua onartzea izan zen, taldeen ekarpenei jaramonik egin gabe.

Gure jarrera aurrekontu hauen aurkakoa izan da. Labur labur gure iritzia:

- Ezaguna denez, atez-ateko zabor sistema bilketarekin loturik dagoen edozein asmoren aurka gaude. Are gehiago inbertsio guzti horiek beste erakundeetako laguntzarik gabe ekin nahi bazaio. Udal aurrekontuen arabera 525.000 euro inguru erabiliko dira "Atez ate SA" elkartea martxan jartzeko (...). 2008ko udal aurrekontuan 500.000 euro jarri ziren konpostatze planta sortzeko, 2009an beste hainbeste aurreikusi dira eta 2010rako beste hainbeste konprometitu dira. Dirutza hau honetarako erabiltzea onartezina zaigu.

- Potxoenea eraikina eraberritzea erabaki desegokia da. Bi urteetan 800.000 euro erabiliko dira asmo honetarako. Beste aukera batzuk badaude, diru kopuru berdinarekin askoz ere zerbitzu publiko eraginkorragoa lortuko litzatekeena. Hor ditugu, besteak beste, Kalezarreko auzo elkartearentzat eta Peña Pagola elkartearentzat eraikin berria sortzea edota Ugartondo inguruan udal eraikin berri bat sortzeko udal obligazioa, etxeak egiten direnean. Udal gobernuak ukatzen ditu aukera hauek dirua ez dagoela argudiatuz. Dirua badago; borondatea berriz ez.

- Aurreko guztia kontutan izanik, mailegu berria 2009an eskatzea funtsik gabekoa da, eta hurrengo urteetako asmo guztiak hipotekatuak uzten ditu.

- Udalak herriko hainbat enpresen egoera aztertzen ari da eta ikuskaritza horien arabera isunak jartzen ari zaie. 2009 urterako 40.000 euro jasotzea aurreikusten da. Ikuskaritza hau egiteko enpresa bat kontrataturik dago eta egiten duen lanagatik 120.000 euro kobratuko du. Ez da ekonomian doktorea izan behar ohartzeko udalak lan honekin 80.000 euro galtzen dituela. Edo kontuak gaizki eginak daude edo ikuskaritza lan hau baztertu behar da.

- 1.200.000 eurotako kreditua eskatzea egin nahi diren gauzak ahalbidetzeko etorkizuneko asmoak hipotekatzea da. Kreditu berriak eskatzeko aukera zapuztea da. Zuhurtasun gehiagorekin jokatu beharko luke udalak, are gehiago krisi egoeraren amaiera noiz izango den ez dakigunean eta agian kreditu beharrean egon gintezkelako presazko egoera bati aurre egiteko.

Luze eta zabalago gure kritikak eta arrazoiak www.eausurbil.net web-orrian azalduko ditugu hurrengo egunetan (...).

# Usurbilgo Aralar: "Zenbait puntu kezkaz ikusten ditugu eta besteetan ados gaude"

Aurrekontuen zirriborroari ekarpenak egiteko bi asteko tarte eskasa eman ziguten. Beste udal talde guztien haserrea ikusita beste astebete luzatu zuten tartea. Hona Aralarrek egiten duen balorazioaren laburpena:

Diru-sarreretan 1.200.000 euroko mailegu bat eskatu da gastuei aurre egiteko. Krisi-garaian, gastuak tentuz begiratu behar dira eta inbertsioak ondo neurtu. Herrian sortzen ari diren beharrei aurre egiteko mailegu txikiago batekin konpondu beharko genuke.

Kulturgintza. Herriko elkarteek gero eta ekintza gehiago antolatzen dituzte eta geure eskaera kontuan harturik 105.000 euroraino igo da partida hau. Santixabeletan egindako gastuak iaz asko murriztu ziren eta bide berdinetik aurreikusi dira aurtengorako. Potxoenea berritzeko aurreikusi diren partidekin ados gaude, kultura-taldeek eskertuko dute.

Gazteria. Gero eta gazte-koadrila gehiagok lokala alokatzen dutela ikusirik ludoteka beharrezkoa da. Lehengo zaharren egoitzan egingo dute aurten.

Kirol Patronatuko aurrekontuak adostu dira udalarekin. Oiardo kiroldegian konponketak egingo dira.

Hezkuntza. Udarregi ikastolak eraikin berri bat egin nahi du matrikulatutako haurrak gero eta gehiago direlako. Horretan udalak ere diruz lagundu beharko du eta gastuetan aurrikusten joan beharko da. Egingo diren proposamenetan eta proiektuetan gure ekarpenak egiten saiatuko gara. Zumarte musika-eskolarentzako ere irtenbidearen zain gaude.

Euskara. Ados gaude proposamenekin.

Hirigintza. (...) Munalurra urbanizatu ahal izango da. Iaz bezala herri guztirako bidegorrien plangintza orokorra egitea eskatu dugu. Plan horren faltan zati batzuk egiten ari dira. Santueneko bidean trenbidearen gainetik pasako den zubia egiteko aurrerapausorik ez da eman. Kalezarren, ekipamenduari dagokionez ez da aurrerapausorik eman.

Ingurunea. Zaborrak atez-ate biltzearen alde gaude eta Usurbil Atez Ate enpresarentzako beharrezkoak diren partiden alde egin dugu. Oraingoz zaborrak Lapatxeko konpostagunera eramaten dira baina Usurbilen beste konpostagune bat jarri nahi da. Horretarako aurten 500.000 euro eta 2010ean beste 500.000 euro gastatzea aurrikusi da. San Markosek beste 2.000.000 euro aprobatuta dauzka. Gaia ondo aztertu eta ahal bada beste diru-iturriak bilatzea eskatu dugu.

Gizartekintza. Aralarrek eskatuta 5.000 euroko partida onartu da, gazteek alokairuzko etxebizitzak eskuratzeko dirulaguntzak emateko.

Emakume, genero arloa. Egungo egoeraren diagnostikoa egin da eta plan estrategikoa eta ekintzak onartu beharko dira.

Zenbait puntu kezkaz ikusten ditugu eta besteetan ados gaude, horregatik aurrekontuen behin-behineko onarpenaren bozketan abstentziora jo dugu.

# Usurbilgo EAJ-PNV: "Krisi garaian, zuhurtasun gehiagoz kudeatu behar da dirua"

2009ko aurrrekontuak onartuak izan dira. Ogasuneko batzordean bi hilabetez jardun gara eztabaidan. Esan beharra dago udal gobernuak ez duela izan negoziatzeko prestutasunik. Aralarreko ekarpen txiki batzuk baino ez dira onartuak izan.

Deigarria egiten zaigu aurtengo aurrekontuetan, zorra 1,2 milioi eurotan igotzen dela. Igoera honen arrazoia zenbait inbertsiorena da noski.

Gure ustez, krisi egoera batean egoera normal batean baino zuhurtasun gehiagoz kudeatu behar da dirua, arduragabekerietan erori gabe. Jadanik aurten aurreikusitakoa baino 400.000 euro gutxiago izango ditugu zerga jaitsieraren ondorioz eta datorren urtean berdina gerta daiteke. Beraz, ez dugu uste Udalari interesatzen zaionik zorpetze maila gehiagotzea.

Noski, zenbait inbertsioekin ados gaude: Santueneko kirol ekipamenduarekin edo udalarentzat lokala egokitzearekin, Olarrondoko urbanizazio berritzearekin ere, baina ez gaude batere ados beste batzuekin: Potxoeneko etxea eraberritzearekin (800.000 euro), eraikuntza oso txikia delako eta proiektua ez dagoelako ondo aztertuta. Baina gehien bat kezkatzen gaituena eta neurri batean larritu ere, beste bi inbertsioak dira. Bata garbitxikia Zubietan (400.000 euro) eta bestea konpostatze planta (1.000.000 eurokoa), biak Usurbilgo udalaren gain doazelako. Nola da posible inbertsio hau Usurbilgo Udalaren gain joatea Donostiako Udaletxea prest zegoenean garbitxikia berak ordaintzeko? Eta baita ere konpostatze planta Foru Aldundia ados zegoenean berak ordaintzeko?

Usurbilgo udal gobernuak erakunde guztiekin elkarrizketaren eta akordioaren bidea lantzen hasi beharko luke behingoz. Onartezina da bere ezgaitasunarengatik Usurbilgo herriak 1.400.000 euro ordaindu behar izatea. ANVko udal gobernuari kudeaketa ekonomiko zuzena egin dezala exijitzen diogu.

Kudeaketa ekonomiko honen ondorioz faltan bilatzen ditugu benetan beharra dagoen gaietan neurririk ez hartu izana: Eguneko Zentroko itxaroten zerrendarekin zer planteatzen da? Ezer ez. Zer planteatzen da kiroldegiaren handitzearen eta konpontzearekin? Ezer ez. Usurbilgo sarreran aspalditik egoera txarrean dagoen zubiarekin? Ezer ez.

Guzti honengatik aurtengo aurrekontuak ez ditugu onartu. Krisialdi honetan inoiz baino gehiago inbertsioak ondo planteatu eta ondo neurtu behar direlako, eta ANVko kudeaketa ekonomikoa ez delako zuzena.

# Herri galdeketa egiteko konpromisoa berretsi zen plenoan

**Ahalik eta azkarren hondakinen kudeaketari buruzko galdeketa egiteko konpromisoa berretsi zuen udalbatzak, pasa den martxoaren 26an burutu zen ez-ohiko osoko bilkuran. Aldiz, aztergai zituzten beste bi puntuak mahai gainean geratu ziren: herri kontsultaren galdera eta aipatu galdeketa egin artean, otsailaren 13an ez-ohiko osoko bilkuran onartutako gai zerrendako hiru puntuak bertan behera uzteko eskaera. Gobernu taldeak udal eta herri eragileekin biltzeko asmoa du.**



ATEZ ATEKOA MARTXAN DA BAINA UDALBATZAK HERRI GALDEKETA EGITEKO KONPROMISOA BERRETSI DU.

Hondakinen gaiak interesa piztu du herritarren artean. Parte hartze prozesuan ikusi bezala, martxoaren 26an burutu zen ez-ohiko bilkura horren lekuko izan zen. Udalbatza aretoa txiki geratu zen, udal ordezkariekin batera, bertaratu ziren herritarrak zenbatuta.

Atez atekoari lotutako herri galdeketa izan zen aipatu bilkurako ardatz nagusia. Hiru puntuko gai zerrendatik ordea bakarra bozkatu zen, beste biak mahai gainean geratu baitziren.

Lehenik eta behin, udal taldeek herri galdeketa egiteko jarrera berretsi edo ez erabaki behar zuten. Jada identifikatua dagoen arazoari heldu eta irtenbide erreal bat eman behar zitzaiola azpimarratu zuen alkateak, eztabaida partzial eta interesdunak alboratuta. “Ingurumena, geure osasuna jokoan daude”, adierazi zuen. Bost mila biztanletik gorako udalak hondakinak gaika bildu eta birziklatzeko tratamenduak bultzatzera behartuta daudela zioen.

### Atez atekoa bai, herri galdeketa ere

EAtik Luismari Ormaetxeak hasi berria zen osoko bilkurari buruzko dokumentaziorik ez zutela jaso, eta lehen puntua mahai gainean uztea galdegin zuen. “Eztabaidak behar bezala egin behar dira”, zioen.

Aralartik Joxe Ramon Furundarenak garrantzitsutzat jo zuen ahalik eta azkarren galdeketa egiteko asmoa. Madrilera bidaltzeko txostenak, “atzerapenik gabe egitea” eskatu zuen, eta gaia osoko bilkurara ekartzea ahal bezain laster onartzeko. Mamuak desagertzen joango direla eta gehiengoa sistemaren alde dagoela ziurtatu zuen. Bide beretik joan ziren EAJ-PNVko zinegotzi Iñaki Illarramendiren adierazpenak ere, hondakin sistema berriaren aldeko jarrera erakustearekin batera, galdeketa lasterren egitea galdegin zuen eta.

> **HERRI GALDEKETA**
>
> “Udal gobernu taldeak udal ordezkari eta herriko eragileekin biltzeko asmoa du, gaia landu eta sakontzeko”

Amaia Goyaran PSE-EEko zinegotziak atez atekoa, aukera oso on gisa definitu zuen. Baina herritar guztien parte hartzea beharrezkotzat jotzen du. “Herri osoa inplikatzen ez bada, arazo bat dago”, adierazi zuen zinegotziak. Herri galdeketa egin eta emaitza edozein izanda ere, onartzea eskatu zuen. Gaia lantzeko, lanerako konpromisoak hartzea eskatu zuen.

Bozketa unean, herri galdeketaren aldeko jarrera berretsi zuen udal ordezkarien gehiengoak, EAko zinegotziak izan ezik, abstentziora jo baitzuten gaia mahai gainean uzteko eskaerak babesik jaso ez ostean.

### Beste bi puntuak, mahai gainean

Herri kontsultaren galdera atez atekoa bai edo ez izatea eta otsailaren 13ko ezohiko osoko bilkuran onartu ziren puntuak galdeketa egin artean bertan behera uzteko eskaera mahai gainean geratu ziren martxoaren 26ko saioan.

Galdeketa egiteko behar den adostasun maila aintzakotzat hartuta, udal gobernu taldeak udal ordezkari eta herriko hainbat eragilerekin biltzeko asmoa adierazi zuen, gaia landu eta sakondu ahal izateko.

Horren aurrean, Ormaetxeak, ezohiko osoko bilkura burutzeko udal gobernu taldeak zuen borondatea zalantzan jarri zuen, araudiko azken egunera arte itxaron zuela argudiatuta.

Atez atekoak jorratu duen bidea inposizio hitzarekin lotu zuen, bertaratu ziren hainbat herritarren artean ezinegona sortuz. Gai zerrendako bi puntuak bozkatzea galdegin zuen. Alderdi beretik Salome Portuk atez atekoak ez zituela konbentzitu zioen, eta haiek bezala ezta herri galdeketa burutzea eskatu duten herritarrak ere.

## Imanol Azpirotz, ingurumen arloko zinegotzia

# “Birziklatu nahi duenarentzat, bilketa modu hoberik ez dago”

**Atez ateko bilketa proiektuari lotutako ikuspegi bikoitza du Imanol Azpirotzek. Ingurumen zinegotzia da Usurbilgo udalean eta, aldi berean, San Markosko Mankomunitateko lehendakari ordea da. Atez atekoari lotutako emaitzak hobetzen doazela ikusi eta Mankomunitatetik halako esperientziak inguruko herrietara zabaltzeko lanetan ari direla adierazi du.**

**NOAUA! Herri galdeketari buruz eztabaidatu zenuten martxoaren 26ko ezohiko osoko bilkuran. Zer nolako balorazioa egin dezakezu bertan esandakoaz?**

**Imanol Azpirotz.** Ni gustura atera nintzen plenotik. Argi geratu zen, gure borondatea eta besteena zein den. Lan asko egin da eta jende gehienarengana iritsi garela uste dut. Badago atez ateko zabor bilketa onartu ez duen talde bat, nahiz eta ez dagoen horrelako emaitzak dituen beste sistemarik. Azkenean, herritar guztiona den zaborren gaia, politizatu egin da. Pasa den osteguneko osoko bilkura horren adibide bat izan zen. Bertan argi gelditu zen, gaia landu egin behar dela. Herritarrak eta gu ikastaro fase batean gaude. Ohitzen ari gara. Sistema osoa ez dago abian, baina herritarrek oso borondate ona dute eta hutsune horiek gainditzen ari dira. Egunetik egunera zati guztietatik, hondakin gehiago biltzen ari gara.

**N. Atez atekoa normaltasunez hasi den sentsazioa benetakoa al da?**

**I. A.** Gai honen atzean mamu asko sortu dira, baina gauza hoberena norberak probatzea da. Lehen hondakinak bereizten zituena konturatuko da, ez dela aldaketa handia izan. Birziklatu nahi duenarentzat bilketa modu hoberik ez dago. Hori errazten baita ahalik eta gehien. Bereizten ez zuenarentzat aldaketa bat etorri da, oztopoak daude, astean behin bakarrik biltzen baita birziklagarria ez den zatia. Atez atekoa martxan jarri aurretik, egunero zabortegira eramaten genuen kantitatea orain astean behin eramaten denarekin alderatuta, nabaria da aldea.

**N. Eta Sutegiko informatzaileek, zer nolako mezua helarazi dizuete.**

**I. A.** Guztia ez dago puntu-puntuan, etiketak oraindik jarri gabe daude ontzietan, zintzilikagailuetan ez dago guztia behar den bezala jarrita. Ondo egin nahi dutenek kezkak agertzen dituzte. Bilketa denbora ere murriztu nahian gabiltza. Guztioi lana erraztu eta proiektuak aurrera egitea lortu behar dugu.

**N. Zaborra herritar guztion arazoa dela barneratu dela esan liteke, gaiak eman duen zeresanarekin, ezta?**

**I. A.** Helburua lortu da. Jendeak hondakinei buruz ikaragarri hitz egin du. Herritarren borondatea oso positiboa da. Jordi Colomer teknikariak dioenez, beste atez ateko bilketako esperientziek baino hasiera hobea izan du Usurbilgoak. Gauzak hobetuko ditugu.

> **IMANOL AZPIROZ, ZINEGOTZIA**
>
> “Herritarrek oso borondate ona erakutsi dute. Egunetik egunera, hondakin gehiago biltzen ari gara”

**N. Organikoa Azpeitiko konpostatze plantara doa. Bertara ailegatu den organikoa purutasun handikoa omen da.**

**I. A.** Lehen eramanaldiak %98eko garbitasuna zuen edo beste modu batean esanda, %2ko inpropioekin joan da.

**N. Udal aurrekontuak hasieraz onartu dira. Atez ateko proiektuak garrantzia berezia izango du.**

**I. A.** Atez atekoa eta konpostatze gunea bateratsu jartzea nahi genuen. Bestela, atez atekoa lehenago jarria izango genuen. Baina errauste planta egin nahi dutenek diru-laguntzak kontrolatzen dituzte. Horrelako proiektuak aurrera ateratzea oztopatu nahi zuten. Gu konturatu ginen, une batean, nahiz eta konposta gunea eduki ez, garrantzitsuena ondo biltzen hastea zela. Horregatik erabaki genuen, konpostatze gunea izatea lortzen ez bagenuen, atez atekoarekin aurrera egingo genuela. Guretzat konpostatze-plantarekin eta atez ateko bilketarekin, zabor kudeaketa konponduta dago.



“ATEZ ATEKO BILKETA EGITEN DUTEN BESTE HERRIETAN BAINO HASIERA HOBEA IZAN DU HEMEN”.

**N. Mankomunitatearen eta Udalaren arteko elkarlanari jarraiki, zeintzuk dira eman asmo dituzuen hurrengo urratsak?**

**I. A.** Mankomunitatetik atez ateko proiektua beste udalerrietan martxan jarri eta konpostatze guneak egiten laguntzea. Usurbilen bat egin nahi da, San Markosko beste udalerriren batean beste bat eraiki nahi genuke. Erakunde potoloagoei erakutsiko diegu, zaborraren kudeaketa egoki bat izateko ez dagoela izugarrizko azpiegitura sortu beharrik.

# Apirilaren 25ean, etenik gabeko festa

**Iaz, lehen aldiz egin zen Kale Antzerki Eguna Usurbilen. Eta erantzuna ikusgarria izan zen. Euskal Herrian dagoen eskaintza zabala eta bizia dela frogatu zen. Herritarrek gogotsu hartu zuten parte eta, akaso deigarriena, kanpotik ere lagun asko hurbildu ziren Kale Antzerki Egunarekin gozatzera. Aurten ere, talde amateur zein profesionalen aterpe izango da II. Kale Antzerki Eguna, apirilaren 25erako iragarri dena.**

Txerriki taldeak "Oasia" antzezlan berria eskainiko du. Txerrikiko Gazte Koadrilak ere gauza bera egingo du eta, bestetik, herriko bi musikarik TraktoRock ikuskizun ibiltaria eskainiko dute. Egitaraua zabala da, tartean, puntako taldeak ageri dira: Trapu Zaharra, Alproja, Deabru Beltzak...



Deabru Beltzak taldearen ikuskizunak beti dira ikusgarriak.
II. Kale Antzerkian "Tambores de Feu" saioa eskainiko dute gauerdian.

## Apirilak 25 larunbata, II. Kale Antzerki Eguna

12:00 **Hasiera Riki, Txer eta konpainia** (Usurbil), Dema-plazan.

12:15 **Landaberri Antzerki Eskola: "Dantza garaikidea"** (Lasarte-Oria), frontoian. Ondoren, **Koblakari taldearekin "kalejira"** (Bilbo).

13:15 **Txerrikiren "Oasia"** (Usurbil). Kaxkoan, frontoi atzean. Ondoren, **"moto klasikoak"** Dema-plazan.

14:30-16:00 **Moto klasikoak Bordaberri plazan** ikusgai. Gipuzkoako Erreal Moto Elkarteko lagunen motorrak.

16:30 **Bululuak taldearekin "Mimoak"** (Donostia) Artzabalen.

17:10 **Txerriki Gazte Koadrilaren "Bi aurpegi"** (Usurbil), ikuskizun berria kaxkoan.

17:30 **De Bote en Bote taldearen "Argotu"** (Bilbo).

18:15 **TraktoRock "Kaleetan zehar" (Usurbil).** Musika ardatz duen ikuskizun ibiltaria.

18:30 **Burdinklash** "Kaleetan zehar" (Meatzaldea). Ikuskizun ibiltaria.

18:50 **Alproja "Moztu!"** (Zarautz) Kaxkoan, dema-plazan.

20:15 **Trapu Zaharraren "Aterpea"** (Donostia) frontoi atzean.

23:30 **Labea taldearen** (Orereta) **"K(h)arrikak"**, Dema plazan.

00:00 **Deabru Beltzak taldearen "Tambores de Feu" (Bilbo),** Dema-plazan, kaxkoan.

Ondoren kontzertua: **Makulu Ken (Lasarte)** frontoian.

**Oharra:** euria egingo balu ikuskizunak frontoian eta Askatasuna plazan.

**Antolatzaileak:** Usurbilgo antzerkilariak (Alex Tello, Ixabel Agirresarobe eta Txerriki Antzerki Taldea) eta Usurbilgo Udala.

Kima

MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA
TEL. 36 61 97


txirriStra
Kontsejuzarra 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

# “Indarrak batuz”, Mendeku Itxuaren berriena kalean

**Ixak Arrutik, Ander Aizpuruak, Iñigo Rotetak eta Martin Larrañagak prest dute jada, labetik atera berria, Ortots burdin hotsak zigilupean kaleratutako euren bigarren lana, “Indarrak batuz” izenekoa. Hautatutako izenburuarekin, proiektu hau gauzatzeko bultzatu den elkarlana gogoan izan nahi da. Abestietako baten bideoklipa ere ekoitzi dute, Txerriki antzerki taldekoen parte hartzearekin. Egindakoaren emaitza pasa den martxoaren 26an aurkeztu zuten Sutegin, prentsaurreko bidez eguerdian eta emanaldia eskainiz iluntzean. Jada eskuragarri dagoen diskarekin, taldeak 2003an hasitako ibilbideari bultzada berria eman nahi dio.**



LIZARDIN JARRI DUTE DISKO BERRIA SALGAI.

Askoren ahalegin metaketaren emaitza gisa deskribatzen dute Mendeku Itxua taldeko kideek plazaratu duten euren lan berria, “Indarrak batuz” izenekoa. Heavy metal melodiko ukituko hamabi abestiz osatutako diska pasa den martxoaren 26an aurkeztu zuten Sutegin.

“Indarrak batuz” izeneko euren lan berriak, pixkanaka ezagutzen eta abestietan sakontzen joateko aukera ematen duela diote talde kideek. “Espero duzuna baino gehiago aurkitzen duzu entzunaldi bakoitzean”, zioen Ander Aizpuruak. Naturaltasunez eta barrutik ateratakoaren emaitza da entzungai dagoen abesti bilduma. Eguneroko bizitzari buruzkoak, kezka edo arazo iturri izan ohi diren gaien ingurukoak. Hainbat musika talderen onena hartu eta berezko ukitua eman nahi izan diote.

### Entzulego anitzarentzat

Abestien artean, bada balada bat ere, garai bateko “Laztana” kanta oroitaraziko diona bati baino gehiagori, Ortots burdin hotsak argitaratzaileko ordezkari Iñaki Esnaolak esan bezala, “zeresana eman dezakeena”. Modu horretan, heavyzaleez gain, entzule gehiagorengana heldu nahi dute, publiko zabalago edo anitzago batengana, edonork izan ditzakeen aurreiritziak gaindituta. “Lehenbizi entzun eta gero epaitu dezatela”, zioen Ixak Arrutik.

Amasako IZ estudioan grabatu dute diska. Giro on eta lasaian bizitako esperientzia baikorra erabat, biziki eskertzen duten jasotako laguntzarekin gainera; Haritz Harreguy herritarrarena hain zuzen. “Zekien guztia transmititu digu”, adierazi zuen Aizpuruak. Lan berriarekin lehen diska alderdi guztietatik begiratuta gainditzeko baliagarria izan zaie. Kantu ederrago eta borobilagoak ditu, Aizpuruaren hitzetan, “lana gogorrago egin dugula nabari da”. 2003an hasitako bidean eman dituzten aurrerapausoen isla.

### Ahalik eta gehien hedatzea

Ortots zigiluaren izenean, Iñaki Esnaolak argi utzi zuen helburu nagusia “euren musika ahalik eta gehien hedatzea” dela.

## Bideoklip eta guzti

Bigarren laneko abesti bat bideoklipean bihurtu dute, Sagar27 ekoiztetxearekin. “Herentziaren mendekua” izeneko kantan, herriko aurpegi ezagun bat baino gehiago ikus daiteke. “Indarrak batuz” izenak, lan berriaren ekoizpen prozesuan bidelagun izan dituztenak gogoan hartu eta eskertu nahi dituztela ezin da ahaztu.

Indar metaketa horren adibide azpimarragarriena hain zuzen, Mendeku Itxua taldeko kideekin batera, aipatu bideoklipean Txerriki antzerki taldekoen parte hartzea izan da. “Herri proiektu bat izan da. Jende askok parte hartu du”, adierazi zuen Iñigo Rotetak.

### Informazio gehiago, sarean

mendekuitxua.net
myspace.com/mendekuitxua
mendekuitxua@gmail.com









# 2008ko balantzea eta 2009 urterako erronkak azaldu ziren NOAUA!ko bazkideen batzarrean

**NOAUA!ko bazkideen ohiko batzarra egin zen martxoaren 26an. Deialdia bazkide guztiei egina zegoen baina gutxi batzuk baino ez ziren elkarteko egoitzara bertaratu. Ia bi orduz luzatu zen batzarrean, 2008ko balantzeak aurkeztu eta 2009ko egitasmoak azaldu ziren.**

Astekariaren balorazioa eginez hasi zen NOAUA!ko bazkideen batzarra. Lan taldeak ondo erantzuten dio asteroko martxari, astekariak gainera harrera ona dauka eta, oso garrantzitsua hau ere, ekonomikoki bideragarria dela frogatu da beste behin ere. 2009rako egitasmoen artean: edukiak zaindu, web orria eta aldizkariaren arteko loturak estutu eta diseinu berria bideratu.

### Diseinu berrian pentsatzen

Abenduan lau urte egingo ditu astekariak. Udazkenerako, erredakzioko lan taldeak diseinu berria jarri nahi luke martxan. Hori baino lehen, astekariari buruzko hausnarketa egingo da eta bazkideek ere iritzia emateko aukera izango dute. Behin hausnarketa eginda, diseinu berria bideratuko litzateke.

### Kultur egitasmoak

Kultur ekimenei dagokionez, 2008an ugari izan dira NOAUA!k bideratu dituen ekitaldiak. Aipatzekoa Patxi Azpirotzek idatzitako liburuak izan duen harrera. Salmentei esker eta udalaren dirulaguntzari esker, bideragarria izan da egindako inbertsioa. Gainera, elkarteari berari, horrelako argitalpenek balio erantsia ematen diote, herrian ez ezik herritik kanpo ere “Gipuzkoan zehar” ibilaldi liburuak izan duen oihartzunarengatik.

2009an, beste liburu bat bideratuko du NOAUA!k, baina aurrerago emango dira xehetasun gehiago. Hala nola, ohikoak bihurtu diren ekitaldiak ere sustatuko dira: Inauteriak (partehartzea gero eta handiagoa da), film laburren proiekzioa, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, Kultur Hamabostaldia, Santo Tomas azoka...

### Diru kontuak, orekatuak

Diru kontuei dagokionez, astekaria eta webgunearen balantzea positiboa izan da 2008an: 242 euroko irabaziak.

Kultur egitasmoei dagokionez, 2008ko balantzea ona izan da, 292 euroko galera baino ez.

### Txostenak, bazkideen eskura

Azken urteotako lan-taldeak jarraituko du elkartearen alde lanean. Ana Aizpurua izango da beste urtebetez NOAUA!ko lehendakari.

Batzarrera etorri ez ziren bazkideek NOAUA!ko bulegoan bertan jaso ditzakete 2008ko balantzeak eta 2009ko egitasmoei buruzko txostenak. E-postaz ere eska daitezke, honako helbidera idatziz: elkartea@noaua.com




ASTEKARIAREN DISEINUA BERRITU NAHI DA 2009AN.

### noaua.com web orria, egunero 600 bisita

Elkarteko webguneari dagokionez, hainbat atal eguneratzea izango da 2009ko erronka. Aldizkari denak PDF formatoan sareratu nahi dira (2008an, 100. aletik aurrerako denak igo ziren PDF euskarrian).

Partehartzea sustatu eta teknologia berriei bideak zabaldu, 2009rako ezarri diren beste erronkak. Hala nola, hemeroteka zerbitzua hobetzea eta posta zerbitzuaren promozioa egitea.

Datuei erreparatuz, 2008an noaua.com webguneak 600 bat bisita izan zituen egunero. Atal bisitatuen artean, sarrerako orrialdea bera, "Usurbilgo baserriak eta baserritarrak", "Posta zerbitzua", "Argazkitegia" edota "Foroa".

## Abian da Felix Aizpurua Literatura Lehiaketa

Felix Aizpurua Literatura Lehiaketaren VIII. edizioa abiarazi du Udalak. Prosan eta olerkian, haur eta gazteei zuzendutako lehiaketa honetan, 8 urtetik 16 urte bitarteko usurbildar gazteek har dezakete parte.

Lanak euskaraz aurkeztu behar dira eta originalak eta argitaragabeak izan behar dute. Gaia librea izango da eta partaide bakoitzak lan bat edo gehiago aurkez dezake.

Udarregi ikastolako ikasleek lanak ikastolan bertan aurkeztuko dituzte. Gainerakoek Udal Euskara Zerbitzura eraman beharko dituzte.

Felix Aizpurua lehiaketako oinarriak, oso-osorik, www.noaua.com webgunean aurkituko dituzue.



APIRILAREN 30EAN AMAITUKO DA LANAK AURKEZTEKO EPEA.

# Ihintza aldizkarian, Udarregiko ikasleak erreportari

**Laster eskuragarri izango da kazetari lanetan dabilen Udarregi ikastolako DBH 3.mailako taldeak kaleratu ohi duen Ihintza bi hilabetekariaren zenbaki berria. Egunotan bolo-bolo dabilen atez ateko hondakin bilketa sistema berria, Tolosa eta Cadizeko inauteriak, edota herriko gazteen lokalak hizpide nagusi izango dituzte. Ihintza.com edota udarregi.com web orrietara jota ezagutu liteke ikasleek burututako lana. Ikasle zein irakasleak, guztiak pozik dira iazko ikasturtean hasitako abenturarekin.**


Ikasle taldeetako bat, Informatika gelan edukiak sarean zintzilikatzen.

Gustura, euren saltsan aurkitu genituen DBH 3.mailako ikasleak pasa den martxoaren 17ko lehen klase orduetan. Gutxi barru irakurtzeko moduan izango den Ihintza aldizkari digitalaren zenbaki berria prestatzen ari dira. Astean pare bat klase ordu zeregin hauetarako baliatzen dituzte.

Bi talde handitan banatuta, batzuek argitaratuko diren edukiak lantzen dituzte. Gainerakoak ordenagailu aurrean eduki horiek txukun aurkezteaz arduratzen dira. Jada prestatua duten diseinu aplikazio batean, testu eta argazkiak zintzilikatzen dituzte. Lan talde baten egitura mantentzen dute, hain zuzen erredaktore eta informatika buru bana baitute, epeak betetzen direla ziurtatzeko. Guztien gidaritza lanetan dabiltza Nerea Zinkunegi eta Joxe Ramon Oiarbide irakasleak. Iazko ikasturtea hasia zela esperientzia pilotu moduan abiarazitako proiektuaren inguruko balorazio positiboa egiten dute. “Errodajea eginda, bigarren urtean, bidea jarraitzen ari gara”, adierazi du Oiarbidek.

## Zenbaki berria, prest

Gaur egun, hezkuntza munduan hainbestetan aipatzen diren konpetentziak lantzeko aukera ematen die ikasleei. Alde horretatik, aldizkaria prestatzera bideratzen duten tailerra aberatsa dela ondoriozta daiteke. “Tailer honetan konpetentzia asko lantzen direla ikusten genuen, hizkuntza edo teknologia berrien aldetik, baita lan taldean aritzeari dagokionean ere. Balorazioa oso positiboa da”, adierazi du Zinkunegik.

Astean zehar, proiektu honi esker, bi arloetan landutako materiala aprobetxagarria bihurtu eta bateratzeko aukera izan dute. Ikus-entzunezko eta informatikako klaseetan landutako edukiak hain zuzen.

Aurreratu dutenez, gutxi barru irakurtzeko moduan izango den Ihintzaren zenbaki berriak, atez ateko hondakin bilketa sistema berriaren nondik norakoak dakartza. Eta inauteri kontuak. Hain zuzen, Tolosako eta Cadizen ospatzen direnen artean zer nolako aldea dagoen ezagutu ahal izango du irakurleak, hainbat bitxikeriekin batera. Herriko gaur egungo gazteak, aisialdi tartean non biltzen diren ere jasoko du Ihintzak. Horretarako, lau lokaletako lagun taldeetako kide bana elkarrizketatu dute.

## Lehenbizi, gaiak aukeratu

Zenbaki honetako pertsona protagonista berriz, Ixabel Agirresarobe izango da. Azkenik ikastolatik egindako irteera eta bestelako albisteen bilduma ere egingo dute. Lan hauetan dabiltza buru-belarri. “Gaien aukeraketa bat egiten da lehenik, beti ere ikasleen gustukoak direla kontuan hartuta. Antolaketa hori egin eta gero, informazioa biltzera bideratzen dira”, adierazi du Joxe Ramon Oiarbidek. Hala, talde bakoitzak lan konkretu bati heltzen dio eta gero, zenbakiz zenbaki txandakatzen joaten dira, guztiek denetarik egiteko aukera izan dezaten. Aipatzekoa da, ikasturte hasieran izan ohi duten Argiako kazetari baten bisitaldia ere. Lanerako hainbat jarraibideen berri ematen diete.

## www.ihintza.com

Udarregi ikastolako lan talde honen emaitza ikusteko bi bide daude; zuzenena ihintza.com web orria bisitatzea edota udarregi.com atarian dagoen loturan klikatzea. Ikasleek lantzen dituzten edukiak ezagutu daitezke, baita aurreko zenbakiak kontsultatu ere. Amaitzear direna kaleratu ostean, ikasturteko laugarren eta azken zenbakia prestatzeko lanetan murgilduko dira.

## Garai batean, fotokopia bidez

Ikasturtea bera ere bitan zatitua dute. DBH 3. mailako ikasleen erdiak informatika gelan dauden artean, gainerakoak sorkuntza lanetan dihardute. Ikasturte erdia igarota, lantokiz aldatzen dira. Ihintza izena aipatuta bestalde, asko garai batean prentsa tailerrean idazmakinez eta lehenago, eskuz egiten zuten aldizkari hartaz oroituko dira. “Garai batean eskuz egiten genuen aldizkaria. Ikastolak fotokopiatu eta ikasturte amaieran 25 pezetaren truke etxera eramaten genuen”, adierazi du Zinkunegik. Ordutik lan tresnek izan duten eraldakuntzaren lekuko izan da ikasleek prestatutako aldizkaria.

# Larunbat honetan, eskubaloi taldearen batzarra

**Larunbat honetan, Usurbil KE eskubaloi taldeak batzarra egingo du Sutegin. Azken urteko diru kontuak aztertuko dira, kirol emaitzen berri eman eta zuzendaritzaren aurkezpena ere egingo da. Goizeko 11:00etan hasiko da batzarra eta deialdi berezia egin zaie jokalariei, jokalarien gurasoei eta taldeko bazkideei.**

## Helduak, Euskal Ligan

Helduei dagokionez, txapelketa bigarren postuan amaitu dute eta orain Euskal Ligara igotzeko fasea jokatzen hasi dira. "Orain arteko lanarekin oso gustura gaude, denboraldi hasieran jarritako helburua fasea jokatzea zelako eta orain hau lortuta, mailaz igotzeko itxaropenez gaude. Asteburu honetan faseko lehen partida 32-33 galdu egin dugu, baina, ea zorte pixka batekin lortzen dugun", aitortu digu Asier Salsamendik.

**JUBENIL NESKAK**

"Bilboko Etxebarrin jokatuko diren Euskal Ligako finaletan lehiatuko dira"

## Jubenil neskak, Euskal Ligako finaletan

Jubenil neskak ere bikain ibili dira Euskal Ligan. Jokatutako lehen fasean ongi aritu ondoren, bigarren faserako sailkatu eta bertan ere lan txukuna egin dute. Honi esker, datorren asteburuan Bilboko Etxebarrin jokatuko den Euskal Ligako finaletan izango dira. Final hauetan erabakiko da Euskal Ligako zein talde joango diren Estatuko sektorera. "Partidak ostirala, larunbata eta igandean izango dituzte eta ea herriko neskak animatzera joaten garen eta, iaz bezala, Sektorera joateko aukera dugun", Asier Salsamendik egindako eskaera da hauxe.

## Jubenil mutilak, Udaberri Txapelketan

Gipuzkoako Ligan 3. postuan amaitu zuten jubenil mailako mutilek. Ez ziren Euskal Ligarako sailkatu, baina Federazioak antolatutako Udaberriko txapelketan parte hartzen ari dira. Asier Salsamendik adierazi digunez, "denboraldi hasieran maila ona ematen hasi ziren, itxaropentsu ginen, baina azkenean ezin Euskal Ligarako sailkatu. Udaberri torneoaren hasieran burua altxa ezinik ibili ginen, baina azkenaldian goraka doa taldea. Ea Gipuzkoako kopan zer nolako maila ematen duen".

## Kadete neskak, lehen postuan

Kadete neskak Euskal Ligan hasi ziren, baina jokalari asko lehen urtekoak izatean, eta kopuruz ere justu ibili direnez, ez dute bigarren faserako sailkatzea lortu. Hauek ere Udaberriko torneoa jokatzen ari dira eta lehen postuan kokatuta daude. Ea horrela jarraitzen duten.



ANTTON PAGOLA IZAN DA AZKEN ZOZKETAKO IRABAZLEA. BI PERTSONENTZAT SAIZARREN AFARIA IRABAZI DU. SAIZAR SAGARDOTEGIA ETA ZOZKETAN PARTE HARTZEN DUTENAK ESKERTU NAHI DITUZTE ESKUBALOI TALDEKOEK.

## Kadete mutilak, Gipuzkoako txapeldun

Azkenik kadete mutilak ere lan bikaina egiten ari dira. Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuten. Euskal Ligarako sailkatu ziren eta beraien multzoan hirugarren sailkatu dira.

## Aitzaga Mus Txapelketa, Aginagako Arraten

Asteburu honetan jarraipena izango du Aitzaga Mus Txapelketak; Aginagako Arrate Elkartean. Ostiral honetan, gaueko 22:00etan hasiko da txapelketa. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu.

Aginagako mus saioa eta gero banatuko diren sariak hauek izango dira: garaileentzat, bi arkume, mariskoa eta txanpaina. Bigarren geratzen den bikotearentzat, lau koneju, txangurroak eta txanpaina. Hirugarrenarentzat, bi koneju eta txangurroak. Laugarrenarentzat, bi koneju eta txangurroak.

Zazpi jardunaldiz osatzen da Aitzaga Mus Txapelketa. Jardunaldi bakoitzean puntuak banatzen dira eta amaieran sari bereziak banatuko dira. Aurreko hilabetean, Txokoalden jokatutako saioan Justo-Markel bikotea izan zen nagusi eta lehen postuan daude orain.




Papera jartzea eta Pinturak orokorrean
FERNANDO PINTURAK
943 366 019
943 363 460
Kale Nagusia 1 · USURBIL



# Igande honetan, Aginagako Lehen Mendi Lasterketa

**Apirilaren 5a, igandea, goizeko hamaiketan hasita, Aginagako Lehen Mendi Lasterketa jokatuko da. Izen ematea zabalik dago herrikrossa.com web orrialdean, edo egunean bertan egin dezake. 14,24 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute lasterkariek. Sari potoloak jasoko dituzte garaileek.**

Lasterketa probetan azken ordurako utzi ohi da parte hartu edo ez erabakitzea. Halere, azken egunotan pixkanaka herrikrossa.com web orrialdean mugimendua handitzen joan da. Hain zuzen, aipatu atarian igande honetan, apirilak 5, Aginagan jokatuko den Lehen Mendi Lasterketan parte hartzeko izena eman daiteke.

### Frontoitik abiatuko da

Inskripzioa, zortzi euroren truke egin liteke. Edota egunean bertan. Proba goizeko hamaiketan hasiko da. Nahi duenak azken orduan izena emateko aukera izango du hamar euroren truke, goizeko 9:30-10:30 artean. Aginagan hasi eta amaituko den kirol proba, mendi itzulia izango da, 14,24 kilometrotakoa. Frontoitik abiatu, erriberara jaitsi eta Mapilerako bidea hartuko dute lasterkariek. Arrilla Txikira igo eta jarraian, Bordatxo mendia inguratuko dute. Amaitu, hasitako leku berean bukatuko da korrika saioa, Aginagako frontoian bertan.

Beraz, ez da ibilbide laua izango. Lasterkariak baxuen 14,08 metroko garaieran ibiliko dira. Altuen, 316,41 metrotan arituko dira korrika. Kalkulatzen denez, kirol probako desnibela, guztira 494,60 metrotakoa da. Lasterketaren gogortasuna agerikoa da, ikusgarria izango da beraz.

### Esku bete sari

Parte hartzaileen artean sari sorta ederra zozketatuko da. Lehen lau gizonezko zein emakumezko sailkatuentzat, trofeoekin batera, 150 euro, ehun euro edota 50 euro hurrenez hurren. Berrogei urtetik gorako zein Aginagako gizonezko zein emakumezko beteranoek ere trofeo bana jasoko dute. Gainerakoan zozketa ugari burutuko dira, lasterketa amaitu ostean.



MENDI LASTERKETAK UGARITU EGIN DIRA EUSKAL HERRIAN.

Herrikrossa.com web gunean izena eman dutenen artean, Thalaso La Perlarako sarrerak, jatetxeetako otorduak… zozketatuko dira.

Informazio gehiago honako telefono zenbakian: 677 882 321. Edota honako e-postan: oskarmapil@hotmail.com

## Usurbilgo Pilota Txapelketa, martxan

Bi aste barru hasiko da Usurbilgo Pilota Txapelketa. Euskal Herriko talde ezberdinek eman dute izena. Lehen partidak apirilaren 18an larunbatarekin jokatuko dira. Goizeko 11:00etatik aurrera, Usurbilgo frontoian. Igandean ere, ordu berean beste bi partida jokatuko dira. Usurbildarrek, ordea, apirilaren 25eko asteburuan egingo dute debuta.

Jubenil mailako txapelketa, ordea, maiatzaren 2an hasiko da. Usurbilgo hiru bikote arituko dira jubenil mailan: Santxo-Aizpitarte, Gesalaga-Galarraga, Mendizabal-Ostolaza.

## Andatzako bazkideentzat kamisetak atera dituzte

Kamiseta koloretsua, bizia eta diseinu dotorekoa. Halakoak dira Andatza Mendi Taldekoek prestatu eta eskuragarri jarri dituzten kamisetak. Bazkide bakoitzak berea jaso dezake, asteartero iluntzeko 20:00etik 21:00etara. Tarte horretan biltzen baitira Andatzakoak bilerak egiteko, udaletxe ondoan, DYA-k egoitza duen leku berean hain zuzen.

Oraingoz, kamisetak bazkideentzat soilik izango dira. Harreraren arabera ordea, mendi taldekoek ez dute alboratzen salgai jartzeko ideia. Oraingoz, bazkideentzat baino ez daude.

## Baxurde Txikik indartsu hasi du denboraldia

Baxurde Txiki triatloi taldeko kide Iñaki Añorgak eta Mikel Otaegi kirolari usurbildarrek indartsu hasi dute kirol urte berria.

Aldez aurretik izandako emaitzak aintzakotzat hartuta, Gasteizko estatu mailako duatloi proban parte hartzeko aukera izan zuten pasa den martxoaren 22an. Euskadiko Selekzioak zortzi lasterkari onenak hautatu zituzten, Arabako hiriburuko probarako. Tartean ziren, Añorga eta Otaegi usurbildarrak. Hurrengo duatloi proba, igande honetan, apirilaren 5ean Azkoitian izango dute.

# Autobus Ordutegia

## Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

| Donostia | Urbil | Usurbil | Orio | Zarautz |
|---|---|---|---|---|
| 06.55 | >> | 07.15 | 07.25 | 07.35 |
| 07.40 | >> | 08.05 | 08.15 | 08.25 |
| 08.10 | >> | 08.35 | 08.45 | |
| 08.40 | >> | 09.05 | 09.15 | 09.25 |
| 09.10 | 09.30 | 09.35 | 09.45 | |
| 09.40 | >> | 10.05 | 10.15 | 10.25 |
| 10.40 | >> | 11.05 | 11.15 | 11.25 |
| 11.40 | >> | 12.05 | 12.15 | 12.25 |
| 12.10 | 12.30 | 12.35 | 12.45 | |
| 12.40 | >> | 13.05 | 13.15 | 13.25 |
| 13.10 | 13.30 | 13.35 | 13.45 | |
| 13.40 | >> | 14.05 | 14.15 | 14.25 |
| 14.10 | 14.30 | 14.35 | 14.45 | |
| 14.40 | >> | 15.05 | 15.15 | 15.25 |
| 15.10 | 15.30 | 15.35 | 15.45 | |
| 15.40 | >> | 16.05 | 16.15 | 16.25 |
| 16.40 | >> | 17.05 | 17.15 | 17.25 |
| 17.40 | >> | 18.05 | 18.15 | 18.25 |
| 18.10 | 18.30 | 18.35 | 18.45 | |
| 18.40 | >> | 19.05 | 19.15 | 19.25 |
| 19.10 | 19.30 | 19.35 | 19.45 | |
| 19.40 | >> | 20.05 | 20.15 | 20.25 |
| 20.15 | 20.35 | 20.40 | 20.50 | 21.00 |
| 21.00 | 21.20 | 21.25 | 21.35 | 21.45 |
| 22.15 | 22.35 | 22.40 | 22.50 | 23.05 |

| Zarautz | Orio | Usurbil | Urbil | Donostia |
|---|---|---|---|---|
| 06.45 | 06.55 | 07.05 | >> | 07.30 |
| 07.15 | 07.25 | 07.35 | >> | 08.00 |
| 07.45 | 07.55 | 08.05 | >> | 08.30 |
| 08.15 | 08.25 | 08.35 | >> | 09.00 |
| 08.45 | 08.55 | 09.05 | >> | 09.30 |
| | 09.30 | 09.40 | 09.45 | 10.10 |
| 09.45 | 09.55 | 10.05 | >> | 10.30 |
| | 10.30 | 10.40 | 10.45 | 11.10 |
| 10.45 | 10.55 | 11.05 | >> | 11.30 |
| 11.45 | 11.55 | 12.05 | >> | 12.30 |
| 12.45 | 12.55 | 13.05 | >> | 13.30 |
| | 13.30 | 13.40 | 13.45 | 14.10 |
| 13.45 | 13.55 | 14.05 | >> | 14.30 |
| | 14.30 | 14.40 | 14.45 | 15.10 |
| 14.45 | 14.55 | 15.05 | >> | 15.30 |
| | 15.30 | 15.40 | 15.45 | 16.10 |
| 15.45 | 15.55 | 16.05 | >> | 16.30 |
| | 16.30 | 16.40 | 16.45 | 17.10 |
| 16.45 | 16.55 | 17.05 | >> | 17.30 |
| 17.45 | 17.55 | 18,05 | >> | 18.30 |
| 18.45 | 18.55 | 19.05 | >> | 19.30 |
| | 19.30 | 19.40 | 19.45 | 20.10 |
| 19.45 | 19.55 | 20.05 | >> | 20.30 |
| 20.45 | 20.55 | 21.05 | 21.10 | 21.30 |
| 21.15 | 21.25 | 21.35 | 21.40 | 22.00 |

## Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

| Donostia | Urbil | Usurbil | Orio | Zarautz |
|---|---|---|---|---|
| 08.00• | 08.20• | 08.25• | 08.35• | 08.45• |
| 09.00 | 09.20 | 09.25 | 09.35 | 09.45 |
| 10.00 | 10.20 | 10.25 | 10.35 | 10.45 |
| 11.00 | 11.20 | 11.25 | 11.35 | 11.45 |
| 12.00 | 12.20 | 12.25 | 12.35 | 12.45 |
| 13.00 | 13.20 | 13.25 | 13.35 | 13.45 |
| 14.00 | 14.20 | 14.25 | 14.35 | 14.45 |
| 15.00 | 15.20 | 15.25 | 15.35 | 15.45 |
| 16.00 | 16.20 | 16.25 | 16.35 | 16.45 |
| 17.00 | 17.20 | 17.25 | 17.35 | 17.45 |
| 18.00 | 18.20 | 18.25 | 18.35 | 18.45 |
| 19.00 | 19.20 | 19.25 | 19.35 | 19.45 |
| 20.00 | 20.20 | 20.25 | 20.35 | 20.45 |
| 21.00 | 21.20 | 21.25 | 21.35 | 21.45 |
| 22.00 | 22.20 | 22.25 | 22.35 | 22.45 |
| 22.30 | 22.50 | 22.55 | 23.05 | 23.15 |
| **LARUNBAT GAUETAN** | | | | |
| 00.00 | >> | 00.25 | 00.35 | 00.45 |
| 01.00(U) | >> | 01.25(U) | 01.35(U) | 01.45(U) |
| 02.00 | >> | 02.25 | 02.35 | 02.45 |
| 04.00 | >> | 04.25 | 04.35 | 04.45 |
| 05.00(U) | >> | 05.25(U) | 05.35(U) | 05.45(U) |
| 06.00 | >> | 06.25 | 06.35 | 06.45 |

| Zarautz | Orio | Usurbil | Urbil | Donostia |
|---|---|---|---|---|
| 06.45 | 06.55 | 07.05 | 07.10 | 07.30 |
| 07.45 | 07.55 | 08.05 | 08.15 | 08.40 |
| 08.45 | 08.55 | 09.05 | 09.15 | 09.40 |
| 09.45 | 09.55 | 10.05 | 10.15 | 10.40 |
| 10.45 | 10.55 | 11.05 | 11.15 | 11.40 |
| 11.45 | 11.55 | 12.05 | 12.15 | 12.40 |
| 12.45 | 12.55 | 13.05 | 13.15 | 13.40 |
| 13.45 | 13.55 | 14.05 | 14.15 | 14.40 |
| 14.45 | 14.55 | 15.05 | 15.15 | 15.40 |
| 15.45 | 15.55 | 16.05 | 16.15 | 16.40 |
| 16.45 | 16.55 | 17.05 | 17.15 | 17.40 |
| 17.45 | 17.55 | 18.05 | 18.15 | 18.40 |
| 18.45 | 18.55 | 19.05 | 19.15 | 19.40 |
| 19.45 | 19.55 | 20.05 | 20.15 | 20.40 |
| 20.45 | 20.55 | 21.05 | 21.15 | 21.40 |
| 21.45 | 21.55 | 22.05 | 22.15 | 22.40 |
| **LARUNBAT GAUETAN** | | | | |
| 23.15 | 23.25 | 23.35 | >> | 00.00 |
| 00.15(U) | 00.25(U) | 00.35(U) | >> | 01.00(U) |
| 01.15 | 01.25 | 01.35 | >> | 02.00 |
| 02.15(U) | 02.25(U) | 02.35(U) | >> | 03.00(U) |
| 03.15(N) | 03.25(N) | 03.35(N) | >> | 04.00(N) |
| 04.15(U) | 04.25(U) | 04.35(U) | >> | 05.00(U) |
| 05.15 | 05.25 | 05.35 | >> | 06.00 |

• Larunbat LANEGUNETAN bakarrik (U) Udan bakarrik 09/06/22-09/09/14 (N) Neguan bakarrik

# Tren Ordutegia

| Zarautz | Orio | Usurbil | Donostia |
|---|---|---|---|
| 06.08 | 06.15 | 06.24 | 06.39 |
| 06.38 | 06.45 | 06.54 | 07.09 |
| 07.08 | 07.15 | 07.24 | 07.39 |
| 07.38 | 07.45 | 07.54 | 08.09 |
| 08.08 | 08.15 | 08.24 | 08.39 |
| 08.38 | 08.45 | 08.54 | 09.09 |
| 09.08 | 09.15 | 09.24 | 09.39 |
| 10.08 | 10.15 | 10.24 | 10.39 |
| 11.08 | 11.15 | 11.24 | 11.39 |
| 12.08 | 12.15 | 12.24 | 12.39 |
| 12.38 | 12.45 | 12.54 | 13.09 |
| 13.08 | 13.15 | 13.24 | 13.39 |
| 13.38 | 13.45 | 13.54 | 14.09 |
| 14.08 | 14.15 | 14.24 | 14.39 |
| 14.38 | 14.45 | 14.54 | 15.09 |
| 15.08 | 15.15 | 15.24 | 15.39 |
| * 15.38 | 15.45 | 15.54 | 16.09 |
| 16.08 | 16.15 | 16.24 | 16.39 |
| * 16.38 | 16.45 | 16.54 | 17.09 |
| 17.08 | 17.15 | 17.24 | 17.39 |
| * 17.38 | 17.45 | 17.54 | 18.09 |
| 18.08 | 18.15 | 18.24 | 18.39 |
| * 18.38 | 18.45 | 18.54 | 19.09 |
| 19.08 | 19.15 | 19.24 | 19.39 |
| * 19.38 | 19.45 | 19.54 | 20.09 |
| 20.08 | 20.15 | 20.24 | 20.39 |
| 21.08 | 21.15 | 21.24 | 21.39 |
| 22.08 | 22.15 | 22.24 | 22.39 |
| 22.40 | 22.46 | 22.55 | 23.10 |

| Donostia | Usurbil | Orio | Zarautz |
|---|---|---|---|
| 05.47 | 06.03 | 06.14 | 06.20 |
| 06.17 | 06.33 | 06.44 | 06.50 |
| 06.47 | 07.03 | 07.14 | 07.20 |
| 07.17 | 07.33 | 07.44 | 07.50 |
| 07.47 | 08.03 | 08.14 | 08.20 |
| 08.17 | 08.33 | 08.44 | 08.50 |
| 08.47 | 09.03 | 09.14 | 09.20 |
| 09.47 | 10.03 | 10.14 | 10.20 |
| 10.47 | 11.03 | 11.14 | 11.20 |
| 11.47 | 12.03 | 12.14 | 12.20 |
| 12.17 | 12.33 | 12.44 | 12.50 |
| 12.47 | 13.03 | 13.14 | 13.20 |
| 13.17 | 13.33 | 13.44 | 13.50 |
| 13.47 | 14.03 | 14.14 | 14.20 |
| * 14.17 | 14.33 | 14.44 | 14.50 |
| 14.47 | 15.03 | 15.14 | 15.20 |
| * 15.17 | 15.33 | 15.44 | 15.50 |
| 15.47 | 16.03 | 16.14 | 16.20 |
| * 16.17 | 16.33 | 16.44 | 16.50 |
| 16.47 | 17.03 | 17.14 | 17.20 |
| * 17.17 | 17.33 | 17.44 | 17.50 |
| 17.47 | 18.03 | 18.14 | 18.20 |
| * 18.17 | 18.33 | 18.44 | 18.50 |
| 18.47 | 19.03 | 19.14 | 19.20 |
| * 19.17 | 19.33 | 19.44 | 19.50 |
| 19.47 | 20.03 | 20.14 | 20.20 |
| 20.47 | 21.03 | 21.14 | 21.20 |
| 21.47 | 22.03 | 22.14 | 22.20 |

00.00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenetik Igandera eta JAIETAN
* Astegunetan eta Udako (09/06/22- 09/09/14) Larunbat, Igande eta Jaiegunetan

Bezeroen arretarako bulegoa ✆ 902 54 32 10 www.euskotren.es ℹ attcliente@euskotren.es

## Eguneko goardiako farmaziak

**Apirilak 2, osteguna**
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

**Apirilak 3, ostirala**
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

**Apirilak 4, larunbata**
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

**Apirilak 5, igandea**
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

**Apirilak 6, astelehena**
Rodriguez, Nagusia 42 atz., Lasarte

**Apirilak 7, asteartea**
Gil, Nagusia 24, Lasarte

**Apirilak 8, asteazkena**
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

**Apirilak 9, osteguna**
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

**Apirilak 10, ostirala**
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

**Apirilak 11, larunbata**
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

**Apirilak 12, igandea**
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

**Apirilak 13, astelehena**
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

**Apirilak 14, asteartea**
Rodriguez, Nagusia 42 atz., Lasarte

**Apirilak 15, asteazkena**
Gil, Nagusia 24, Lasarte

**Apirilak 16, osteguna**
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

**Apirilak 17, ostirala**
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

**Apirilak 18, larunbata**
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil *

**Apirilak 19, igandea**
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

**Apirilak 20, astelehena**
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

**Apirilak 21, asteartea**
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

**Apirilak 22, asteazkena**
Rodriguez, Nagusia 42 atz., Lasarte

**Apirilak 23, osteguna**
Gil, Nagusia 24, Lasarte

**Apirilak 24, ostirala**
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

**Apirilak 25, larunbata**
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil *

**Apirilak 26, igandea**
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

*GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ*
*Castilla Farmazia (22:00-09:00), Urbieta kalea, 7 Hernani 943 552 941*
**Usurbilen, soilik eguerdira arte*

## Agenda

**Apirilak 2 osteguna**

- **Korrika 16.** Zubieta, Santuenea, kaxkoa eta Aginagatik barrena. 16:00ak aldera kaxkoan izango da.
- **Bakardadeari aurre egiteko alternatibak,** hitzaldia. 17:00etan Artzabalen.
- **Kontukantoi ipuin kontalari taldea,** Sutegin, 18:00etan udal liburutegian. Nori zuzendua: 4 urteko haurrentzat.

**Apirilak 3 ostirala**

- **"Euskal Herriko 20 sekretu txiki"**, diaporama. 20:00etan Sutegin.
- **"Euskal Herriko musika eta soinu tresnak"**, hitzaldi-emanaldia Sutegin, Juan Mari Beltranen eskutik, 22:30ean.

**Apirilak 6 astelehena**

- **"Historia de Navarra, el Estado vasco"**, hitzaldia 19:00etan Sutegin.

**Apirilak 20 astelehena**

- **Nafarroako lurraldetasuna, hitzaldia** 19:00etan Sutegin.

**Apirilak 21 asteartea**

- **Osasunerako zer jan, zer ez jan, hitzaldia** 18:00etan Aginagako ludotekan.

**Apirilak 23 osteguna**

- **Lupe Lekuona ipuin kontalaria.** 18:00etan udal liburutegian.

TSST autobusak
ZUBIETA • DONOSTIA

LANEGUNETAN
Zubieta-Donostia 07:55*/ 08:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T).
Donostia-Zubieta 07:15*/ 08:00/ 12:45(T)/ 13:45*/ 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia 08:15(T)/ 12:45/ 15:15(T)/ 21:35(T).
Donostia-Zubieta 12:45(T)/ 14:30(T)/ 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia 11:25(T)/ 13:30(T)/ 15,30(T)/ 21:35 (T)
Donostia-Zubieta 11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

www.tsst.info ✆ 943 36 17 41

BUS-TAXI
Astelehenetik Ostiralera
630 64 35 96*

| | GELTOKIAK | ORDUAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Usurbil kaxkoa | 7:30 | 10:30 | 13:00 | 15:30 | 19:00 |
| 2 | Kalezar | 7:32 | 10:32 | 13:02 | 15:32 | 19:02 |
| 3 | Iartza | 7:35 | 10:35 | 13:05 | 15:35 | 19:05 |
| 4 | Ibarrola | 7:38 | 10:38 | 13:08 | 15:38 | 19:08 |
| 5 | Arratzain | 7:42 | 10:42 | 13:12 | 15:42 | 19:12 |
| 6 | Txantxon | 7:45 | 10:45 | 13:15 | 15:45 | 19:15 |
| 7 | Urdaira | 7:48 | 10:48 | 13:18 | 15:48 | 19:18 |
| 8 | Aginaga | 7:55 | 10:55 | 13:25 | 15:55 | 19:25 |
| 9 | Txokoalde | 8:00 | 11:00 | 13:30 | 16:00 | 19:30 |
| 10 | Urdaiaga | 8:03 | 11:03 | 13:33 | 16:03 | 19:33 |
| 11 | Santuenea | 8:03 | 11:03 | 13:35 | 16:03 | 19:35 |
| 12 | Usurbil kaxkoa | 8:05 | 11:05 | 13:38 | 16:05 | 19:38 |
| 13 | Santuenea | 8:10 | 11:10 | 13:40 | 16:10 | 19:40 |
| 14 | Amiri | 8:12 | 11:12 | 13:42 | 16:12 | 19:42 |
| 15 | Etxetxo inguruа | 8:14 | 11:14 | 13:44 | 16:14 | 19:44 |
| 16 | Alkortenea | 8:17 | 11:17 | 13:47 | 16:17 | 19:47 |
| 17 | Zubieta | 8:22 | 11:22 | 13:52 | 16:22 | 19:52 |
| 18 | Txikierdi | 8:27 | 11:27 | 13:57 | 16:27 | 19:57 |
| 19 | Usurbil kaxkoa | 8:30 | 11:30 | 14:00 | 16:30 | 20:00 |


# Ostiral honetan Sutegin, Juan Mari Beltranen emanaldia

**Gaztetik ibili da musikaren inguruan. Txalapartari gisa, Bixente bere anaiarekin eta Artze anaiekin hartu zuen parte Jorge Oteizak 60ko hamarkadan sortutako artearen euskal eskolan, tradizioan oinarritutako txalapartaren aro berriari hasiera emanez. Ordutik musikari eta ikertzaile bezala, bide luzea osatu du Juan Mari Beltranek. Ostiral honetan, emanaldi berezia eskainiko du Sutegin, 22.30etik aurrera.**



MUSIKA TRESNETAN ADITUA DA JUAN MARI BELTRAN.

Sustraiak, Azala eta Txanbela taldeetan ibilitakoa da eta Joxean Goikoetxearekin ere hainbat lan ere bideratu ditu. Musikari lanean nabarmendu bada ere, ikertzaile nekaezina da. Herri musika eta soinu tresnen ikerketa arloan lan asko argitaratu ditu, tartean, "Euskal Herriko soinu tresnak" pelikula eta diskoa.

### Herri musikan aditua

1996an, Herri Musikaren Txokoa ireki zuen Oiartzunen. Museo honetan, urte askotan zehar bildu duen materiala erakusten digu: instrumentuak, liburutegia, fonoteka, irudi fitxategiak, argazkiak eta filmak.

Beste musikari eta taldeekin batera ibili bada ere, azkenaldian bakarlari gisa argitaratu ditu bere kantuak. 2001ean "Ardituri" diskoa plazaratu zuen. Oiartzungo meategiari erreferentzia egiten dion lana.

2006 urtean, "Orhiko xoria" diskoarekin, lurrarekiko sentitzen duen zorra adierazi nahi izan zigun.

## Aste Santuan eta Pazko Astean ez da NOAUA! argitaratuko

NOAUA! astekaririk ez da banatuko datozen bi asteetan. Azken urteotan bezalaxe, Aste Santuan eta Pazko Astean ez dugu astekaririk argitaratuko.

Hurrengo alea apirilaren 24an banatuko dugu. Ale horretarako zorion-agurrak, deialdiak, oharrak eta antzekoak ekartzeko azken eguna apirilaren 20a izango da.

Sarean, ordea, www.noaua.com webgunea erabiltzaileen esku izango da, baita Aste Santuko egunetan ere.

## "Euskal Herriko 20 sekretu txiki", diaporama Sutegin

Korrikaren eskutik, hainbat ekitaldi iragarri dira egunotan. Ostiral honetan, apirilak 3, "Euskal Herriko 20 sekretu txiki" ezagutzeko aukera izango dugu. Diapositiba emanaldi honen egilea Ander Izagirre izan da. Josetxo Mayor, Javier Etxepare eta Xabier Cabezonen moduko gizon eta emakumeen istorioak kontatzen dira diaporama honen bitartez.

Saioa 20:00etan hasiko da eta sarrera ez da ordaindu behar. Etumeta euskaltegiak antolatu du saio hau.

### ETXEBIZITZA

-Pisu bat daukat alokairuan eta pisukide baten bila nabil. Hilean 250 euro. 615 006 390.
-Santuenean etxebizitza bat daukagu salgai. 2 logela, sala, sukaldea eta komuna dauzka. 28 milioi negoziagarri. 619591849 / 626456448.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Pisua salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m2 - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m2), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berritua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
-"Yamaha especial 250" motorra salgai. Egoera onean, 700 euro. 615 006 390.
- Xsara Picasso salgai. 2000 urtea, egoera oso onean. 4500 euro, negoziagarriak. 610975757 (Paulo).
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai. 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
-50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
-Usurbilen lokal bat daukat alokatzeko 350 euro hilean. Komuna dauka. 650938489.
-Komuna duen 75 metro karratuko soto komertziala alokatzen dut Usurbilen. 650943847.
-Garaje bat salgai Kale Nagusian, 200 m². Oso merke. 657 700 408.
- Bost ateko Nissan Micra daukat salgai. Matrikula 4545DNN. 666894283 (Ana).
- Atxegalden 30 metro karratuko lokala alokatzen da 943373481 / 943373414.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Galtzaragainan (Dia ondoan) 14 metro karratuko garaje itxi bat daukat salgai. 617972350

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbitzari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.
- Astelehenetik ostiralera eta 13:30tatik 16:30 etxeko lanak eta umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 615 756 893.

#### Lan-eskaintzak

- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
-Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
-Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
-Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
-Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
-Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta informeak ditut. 697737459.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
-Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
-Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
-Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Bordatxo ondoko errotondan, ume baten kaki koloreko txamarra bat galdu da. Barruan kartera dauka. Aurkitu duenak deitu 943364733.
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galdetu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
-Katu txuri beltz bat galdu da Intxaurreta (Aginaga) inguruan. 609 928 387.
- Martxoko azken larunbatean pultsera bat galdu nuen Eguzkitzaldea auzoan. Mailaduna da eta perla urdinak edo "aguamarinak" ditu. Aurkitu baduzu udaltzainetara bueltatu.
- Inauterietako igande goizean Nokia telefono bat ahaztu genuen zesto baten barruan. Aurkitu duenak Txirristra edo Udaletxera bueltatu dezala. Egun batzuren bueltan telefonoa blokeatuko da eta ez du balioko inorentzat.
-Urtarrilaren 29an erloju bat galdu nuen, Erreka Txiki eta Kale Nagusi inguruan. 943 371919.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
-Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 6567652 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net




**Zorionak Patxi!** Hire urtebetetzeko pankartaren atzean azken orduko gonbidatua genian, Agurtzane. A zer poza gurea! Hori bai, are eta handiagoa izango duk hi eta zuek denok gure artean izango zaretenean. Besarkada handi, handi bat guztion partetik!



**Zorionak Eluxka!** Apirilaren 4ean 4 urte egingo ditu gure etxeko Tximeletak. Muxu asko asko etxekoen partez.



**Zorionak Aimar!** Apirilaren 8an lehen urtebetetzea egingo duzu eta aitatxo eta amatxoren partez zorionak eta muxu handi bat.



**Zorionak Maxux!** Nahiz eta urte 1 gehiago jarri bizkar gañian, zu beti parrez... Oso ondo pasa eguna wapaa! Muxuu asko politta!

KALITATEKO EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO
ALKORTA
AUTOZERBITZUA
Frutak
Barazkiak
Etxeko produktuak
Izoztuak
Beheko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42



Ileapaindegia eta Solarium-a
Loli Lizarralde
Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.
Zubiaurrenea, 5B © 943 361 971

# osasun gida

## Farmazia

Iturralde botika
Tomas Iturralde botika
R.P.S. Nº 88/07

- Maisu formulak
- Dermofarmazia
- Produktu Homeopatikoak

Borda berri 1, 20170 USURBIL ☎ 943 36 33 95

## Fisioterapia

Fisioterapia Zentroa Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola kalea, 12 LASARTE-ORIA • ✆ 943 370 306

## Masajista

Kima
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
☎ 943 366 197
Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

## Optika

USURBIL OPTIKA
Entzumeneko aparatuak • Igerilekuko tapoiak neurrira eginda
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan
Zubiaurrenea, 10. USURBIL • ✆ 943 370 269

## Hortz klinika

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
*Nagusia 10, 1.C4* 943 37 08 78 *USURBIL*

Gida honetan azaldu nahi baduzu: ✆ 943 360 321 • publizitatea@noaua.com

# TxoTx!!


AIALDE BERRI
Tel.: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731
Santuenea


LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdietan IREKITA
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867


SAIZAR
Betiko Sagardoa
Kalezar Auzoa, 39 · USURBIL · Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com


ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81


ERRETEGIA-NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA
Egunero irekia.
Arratzainzar Baserria
info@agroturismoarratzain.com
Telf: 943 36 66 63
20170 USURBIL


943 36 12 29
iruin
sagardotegia
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com


Aginaga
Sagardotegia
Urte osoan txotxetik
Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxa: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com